



AGIRREAZKUENAGA, Joseba
Euskal herritarren burujabetza.
Euskal herritarren autogobernu auziaren
bilakaeraz (1793-1919). Foruen bidezko
erankudetzetik Autonomia Estatutura

Irun: Alberdania, 2012
 324 or. ; 21 cm.
 ISBN: 978-84-9868-356-1

Joseba AGIRREAZKUENAGAren azkeneko lan historiko honetan ematen dio gaurkotasuna Euskal Herriko foraltasun publikoaren berezitasunei, batez ere 1919ko lehen Estatutua lortu arte. Izan ere, testu arauemaile eta konstituzionaletan konstantzia historiko eta komun nabarmena izatetik haratagokoa mantendu izan du, batez ere egileak aztertutako epe historikoan.

Hala eta guztiz ere, askoz lehenago, Euskal Herriko Zuzenbide Publikoaren berezko elementu gisa, “foru baimena” erakundea dugu hain zuzen ere, gure Eskubide Historikoen (EE.HH.) zalantzarik gabeko adierazgarria eta, azken baten, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Nafarroako Erreinuko Aldundiak aginte-betearazleen aurkako erresistentzia edota zuzenkizun era.

Jatorriz, “foru baimena”ren historia aurrekaria, GOMEZ RIVEROren esanetan Gaztelan kokatzen da. Egile honen arabera, 1379ko Burgosko Gorteetatik, 1387ko Briviescako estatik eta 1397ko Enrike IIIaren Pragmatikatik aurrera da Zuzenbidearen aurkako gobernu-xedapenen betetze eza (“men egin baina bete ez” esaten da) nagusitzen den unea. Azken finean, arazoaren gaineko erabakiren bat eman ez arte araudiaren ezarpena etetea atzertzea zekarren neurria zen.

XIII. eta XIV. mendeen Gaztelako Koroarekin euskaldunak lokarria ezartzerakoan, Gaztelak euskal lurraldeen Zuzenbidean erabakigarritasunez eragiten du. Horren ondorioz, “men egin baina bete ez” formula ekartzen da. Horrela jasotzen da, hasieran 1452ko Bizkaiko Foru Zaharrean, 1526ko Foru Berrian (“foruz kanpokoak” diren gutunen betetzerik eza) edo Gipuzkoako 1696ko Foruen Bilduma Berrian ere. Nafarroan, Errege Kontseiluak erabilitako gainkarta eskubidea 1556tik aurrera murriztuz doa. XVII. mendearen lehen erdian izango da Errege Kontseiluak berari zegokion “gain-karta” egikaritu aurretik edozein xedapenei buruzko Erreinuko Aldundiak izan behar duen ezagutza formula bezala “foru baimena” sortuko den garaia. Araban, “foru baimena” izenekoaren errege-irudikapena ez da XVIII. mendera arte (1703ko Errege Zedula) gauzatuko. GOMEZ RIVEROrentzako ere, Gipuzkoan foru baimenaren historia ituaren hasiera Usarragako 1473ko Batzar Nagusiko Ordenantzan emango da, Gipuzkoak “kontraforua” edota “foru-haustea” liratekeen errege xedapenik ez duela beteko ezarri.

Batzarretako adierazpenaren arabera, “foru baimena” euskal lurraldeen Zuzenbidearen aurkako edozein xedapenen aurkako gora jotzeko aukera zabala duen foru lurralde bakoitzean indarrean dagoen Zuzenbidea zaintzeko “foruen giltza nagusia da”.

GOMEZ RIVEROrentzako, “foru baimena”ren ezabapena Euskal Herrian izango den Antzinako Erregimenaren krisiarekin hasiko da. Nafarroaren kasuan, 1829.05.14ko Errege Agindu batek Monarkiaren onuratan zedula eta agindu guztien betearazpenari edozein nafar foruren gainetik lehentasuna ematean “foru baimena” ezabatu egiten du. Aldundiak Errege Agindu horrekiko aurka azaldu zen eta Erreginari baliogabetzeko eskaria egin zion. “Foru-baimena”ren behin betiko baliogabetzea 1841eko Foruen Legearekin betetzen da. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eskumena 1841. urte berean amaitu zen, Erregetzaren Behin Behineko 1841.01.05eko Agindu batez. Agindu horren arabera foru baimena: “Gorteen ahalmenaren,

Gobernu Gorenaren agintean, epaitutako gauzaren indarraren eta epaitegien askatasunaren etsigarri zen”.

Aurrekoaren erantzun bezala, 1841-1-26an Bergaran hiru Foru Aldundiak bildu ziren eta ondoren erregetzari gorago esan denaren inguruko alegazio batzuk igortzea erabaki zen, Espartero Jeneralari 1841.2.11n, gaia barregarri izendatzera iritsi zela, emanez. Agindu hark gizartean eta politikan astindu handia sortzea ekarri zuen, guzti horretan Eskubide Historikoen etengabeko gainbehera ikustean. Azkenik 1841-10-29ko Dekretuaren 8. artikulua da hitzez-hitz honako hau adieraztera ematen duena: “Legeak, Gubernuaren xedapenak eta epaitegien erabakiak Baskongadetako lurraldeetan inolako murrizketarik gabe egikaritutako dira, Erreinuaren gainerako lurraldeetan egiten den bezala”.

AGIRREAZKUENAGAREN ildotik ere foraltasuna badu burujabetzarekin lotura zuzena eta oso sakona gure testu historikoetan. Gaur egun ere. Euskal Eskubide Historikoen 1978ko konstituzionalizazioak gai horretan inola ere doako izan ez ziren bitxikeria nabarmen jarri zituen. Horrela, LOPERENAK, 1978ko Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriaren (XG) eta 1839ko Urriaren 25eko Legearen arteko antzekotasunak azpimarratu ditu. Egile horrek adierazten duen bezala, 1839.10.25eko Legeak euskal foruak aldi berean berresten baditu eta sistema erabat komunaren bitartez, 1. XGak aipatutako lurraldeetako Eskubide Historikoak babestu eta errespetatzen baditu, egungo “foru baimena”ren adigai berbera ere, ñabarduraz baina, konstituzionalizatzea iritsiz. LOPERENAK ondo jasotzen duen bezala:

Batak Konstituzioak eskatzen zuen gutxieneko berdintasunerako bere egokitzapena geroko lege batera bidaltzen du, eta besteak adierazpen desberdinez baina, proposamen berdina dakar. Eskubide historikoen gaurkotzea Antzinako Erregimeneko erakunde edo arauen indarra abiaraztearekin ez da nahastu behar, 1839an eta 1978an gaurkotasunak, Konstituzioan ezarritako bizikidetasun eta instituzio parametroetara foru-autogobernuaren egokitzapena, soilik, dakarrelako. Horrek, ezinbestean 1. XGaren araubidezko garapenak politika aukera desberdinak onartzen dituela adierazten du, legegintza-erantzun desberdinak; horrela, “eskubide historikoak” (euren erakunde-bermea babesten duen mui menderaezina salbu) hurrenez hurreneko gaurkotzeen araberaren denboraren joanean funtsean foru erregimen desberdinak sorrarazi ditzake.

Esandako guztiak “foru baimena”ren beraren eta Eskubide Historikoen kontzeptuaren ondorio praktikoak eta ikuspegi ugariak era pragmatikoan eta gaurkotasunez interpretatzera-koan funtsezko lege inplikazioak ditu. AGIRREAZKUENAGAREN ikerketak aztertzen du baita ere Euskal Herritarren ordezkariek eta beraien kultura politikoak, batez ere Espainiako gorteetan. 1793tik 1919ra arte adibide ugari ematen ditu gure foraltasunaren ikuspegi ezberdinei buruz.

Horien artean, eta osagarri gisa, berriz ere indarrean dagoen espainiar Konstituziora jo beharra dugu, bertako Bigarren Xedapen Gehigarria hitzez - hitz ekarri aurretik esandako guztiarekin uztartzeko. Aipatutako xedapenak honako hau adierazten du: “Indarreangotasunik izan zezan heinean, 1839ko urriaren 25eko Legea behin betikotasunez ezabatutzat jotzen da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeei erasango liekeenean. Esamolde berdinetan 1876ko uztailaren 21eko Legea behin betiko indargabetutzat jotzen da.”

Estatuko Konstituzioaren 2. Xedapen Indargabetzaileak 1839ko Urriaren 25eko Legea berariaz Arabarentzako, Gipuzkoarentzako eta Bizkaiarentzako indargabetzen duenean, konstituziogileak erraztasun handiz euskal eta nafar autonomia erregimenen interpretazioan ondorengo gobernu zentralak karakterizatuko dituzten aurreiritziak zeintzuk izango diren adierazten du, eta Konstituzioaren arabera Estatuarekiko Foru Lurraldeen harremanen inguruan egindako interpretazioan euskal abertzaletasunaren zati handi bat haiekin batera ere karakterizatuz. Elkarren arteko desadostasunen eta aipatutako aurreiritzien emaitza bezala, agian, espainiar konstituzionaltasunaren historian izan dezakegun paradoxarik handienetako baten aurrean gaude.

Estatuko Konstituzioaren 2. Xedapen Indargabetzaileak 1839ko Foruak berresten zituen Legea indargabetzen baldin badu, ez du lerro gutxi batzuk arinago Konstituzioaren 1. XGn ezarritako foruzko Eskubide Historikoen begirune eta babesaren aitortpena era zuzenean eta berariaz ezeztatu baino besterik egiten. Irtenbide tekniko sinestezina izatetik urrun ez dago aipatutako aurreikuspen politikoak aintzat hartu gabe. Baina, gainera, aipatutako

indargabetzeak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru lurraldeei bakarrik eragiten die, aipatu lerro horietan Nafarroari buruz ezer aipatzen ez baita. Beraz, Nafarroarako 1839ko Urriaren 25eko Foruen Lege berretzaileak indarrean jarraitzen duela ulertu behar da? Nafarroa konstituzional garaikiderako “foru baimen” ber bitu antzerakoren bat? Erantzun juridikoak hainbat eratakoak izan daitezke, gaur arteko euskal foraltasun publikoaren errealitatea historikoki marrazten duten gorabehera eta liskarren politika oldozmena albora utziko bagenu. Aurreikuspen historiko eta ezadostasunen gatazka bera kasurik gehienez argudio juridikoak baino politikoak zirenekin prozesu konstituziogilean tamalez errepikatua izan zen.

Nire ikuspegitik, “foru baimena” esamoldeari dagokion adigai historikoak iter horren luze-zabalean arima politiko eta juridiko publikoaren borondatezko eta etenik gabeko jarraipena mantendu zuten lurralde jakin batzuen konstituzioarenganako integrazioerako eta inplikatuziorako igarobide logiko eta arrazoizkoa osatzen du. Figura bi horien bat etortzea historian zehar berdinaren arteko hitzarmenaren izaera da. HERRERO DE MIÑONEk errealitate konstituzionalaren foraltasunaren eta Euskal integrazioerako litezkeen bideak adierazi ditu.

NIETO ARIZMENDIARRIETAREN iritzian:

Foraltasuna, iturburu juridiko bezala Foruaren lehentasuna, jada aro modernoan, Subiranotasunarekin eta Estatuaren maila juridiko-politiko berrieekin aurkaritzen denean baino ez du ezaugarri bereizgarri izaera lortzen. Erdi Aroan, aldiz, foraltasuna ordenamendu juridikoen ezaugarri komuna izan zen.

HERRERO DE MIÑON eta T. R. FERNANDEZEK Euskal erakunde eta eskumenen batuketa aritmetiko soila baino askoz gehiago dela adierazten dute. “Foru baimena”ren adibide historikoetatik benetako kontzeptu juridiko-politiko baten izana gauzatzen da, egungo eta hitzartuzko izaera juridikoa izanagatik aldebakarrez indargabetu ezinezkoa den gure errealitate konstituzionalaren aurretikoa ere izan zena.

J. CRUZ ALLIK berak, 1994an zehar Autonomia Erkidegoen Batzorde Nagusiko eztabaidan izandako bere hitzaldian zehar zama politiko eta juridiko nabarmenez inplizituki figura horretaz dihardu. Garai hartan nafar Gobernuaren Lehendakaria izan zenak Madrilgo Gobernuko Presidenteari Madriletik Foru Lurraldeentzako Eskubide Historikoei suposatzen duten hitzarmenari egindako erasoek lituzketen ondorioak jakinarazi zizkion. Foru Lurralde horiek, Eskubide Historikoei eta beraien aldebakarreko indargabetu ezin dakarten “foru baimena” edo subiranotasun-gogo berberean eta aipatutako hitzarmen komunean partaidea dira. Estatuak betearazleak eta beste autonomia betearazleren batek ere, Konstituzioko 1. XGaren Eskubide Historiko-en garapenean nafar eskumenezko aplikazio jakin batzuen aurka bideratutako konstituzionaltasun auziaren inguruan J.CRUZ ALLI-K hauxe adierazi zuen:

Gobernuak eusten dion tesiaren aldeko Konstituzio Epaitegiaren ebazpen (eta litekeena da) hipotetiko batek, Presidente Jauna, Estatu mailako arazo erabat larria azaltzea litzateke, zerga-subiranotasun nafarari, bere eskubide historikoei eta 1839ko Foruen Lege berreslea eman zenetik aurrerako erregimen desberdinekin aitortuz etorri diren Nafarroa Estatuaren barnean bertakotze-arekiko erei errotik eta funtsean eraso egitea litzatekeelako.

Egoera horretan, Presidente Jauna, Nafarroako Foru Erkidegoa ez litzateke bakarrik izango; Nafarroaren eskubide historikoak eta ahalmenak ere arriskuan edo zalantzan jarriko lituzketen Konstituzio Epaitegiaren edozein ebazpenek, zalantzarik gabe eta berehala, foru aldundien erabateko solidaritatea, jatorrizko euskal lurraldeena eta euren Jauriaritzarena ere izango luke. Horrek guztiak Estatuarekiko istilu-arazo erabat larria sorraraziko luke.

Beraz, alde aurretik izandako itun baten gaineko ituna dugu, espainiar konstituzionaltasunaren benetako foru integrazioa bezalako funtsezko eta ardatz nagusi den gaiarekiko istiluak urtea helburu duen gerorako ituna. Ituna herri honen kultura juridiko-politikoaren zati izan da, da eta izango da, Eskubide Historikoak diren bestean eta horietatik eratorritako Ekonomia Itunak ere, hau da, lege eraentze juridiko desberdin bat, bere baitan eta hutsik gabe gartzate anitz eta askotarikoaren asmo juridiko-politikoak barneratzen dituen.

HERRERO DE MIÑONEK 1. XGri bere konstituzio kokapenak aitortzen dion sustanti-

botasun propioa ematen dio, Konstituzioaren zati bezala “talde arautzaile” benetako baten atal gisa baliagarritasuneko erabateko asmodun balio arautzailea izanez. Baina gainera:

Konstituzioaren aurrean, Eskubide Historikoak a priori materiala dira, konstituzionaltasunaz aurretiko eta konstituzionaltasunaz kanpoko izaeraz berezia. Hori guztia hiru aipamen funtsezko hauetan gauzatzen da:

Lehendabizi, Eskubide Historikoak ez dira Konstituzioaren sormena. (...)

Bigarrenaz, Konstituziotik ez eratorri izatean, Eskubide Historikoak, hark onartu eta babestuak, konstituzioaren berraztertzearen aurrean immuneak dira. (...)

Azkenik, Eskubide Historikoak horrela ulertuta, “burujabetzaren etengabeko erretserba” dakarrena egia den arren, hori ez da eskuduntza jakin batzuen indargabetze ezintasunagatik, jakitun izanez euskal herriak bere gain hartutako eta nortasun propioa “izateko eskubidea” ematen duen egitate diferentzial baten suntsiezintasunagatik baizik .

HERRERO DE MIÑONen tesiak atal jakin honetan berriz ere erabilgarritasun handikoak ditugu. Aipatutako egilearentzako, “Eskubide Historikoak, indargabetu ezineko eta suntsiezineko nortasunaren oinarri gisa; burujabetzaren etengabeko erretserba gisa; eta maila guztietan hitzartutako integraziorako bide gisa”, dira beste edozein Autonomia Erkidegoetatik Euskal Herriko eta Nafarroako autonomia integratzeko modu erabat berezia izatea eragiten duena. Aurretiaz esan denaren ondorio bezala, “Eskubide Historikoak betebehar bat besterik ez dute: gizatalde jakin baten baitan egitate diferentziala adieraztera eman eta horrela antolatzeke zerbitzatu. La Placeren nebulosa bezala, ez daude iraganean geroan baizik”. Arestian aipatutakoa nabarmena da ere AGIRREAZKUENAGaren ikerketan.

Ondorioz, Eskubide Historikoen edota “foru baimena”ren muga gisa “batasun konstituzional” horren erreferentzia puntua, bere egunean norbanako bakoitzaren Funtsezko Eskubideen ukiezinezko subiranotasuna litzateke, eta ez, halabeharrez, norbanakoen eta euren dagozkien Funtsezko Eskubideen zerbitzutan dagoen Estatuaren subiranotasuna. AGIRREAZKUENAGaren lanari esker ikuspuntu historikoaren analisia edukiko du hizpide zuzena eta sakona gai honen inguruan gaurkotatua eta zabaltasuna ongi ulertzeko.

Xabier Ezeizabarrena